

BACCALAURÉAT GÉNÉRAL

ÉPREUVE D'ENSEIGNEMENT DE SPÉCIALITÉ

SESSION 2022

LANGUES, LITTÉRATURES ET CULTURES ÉTRANGÈRES ET RÉGIONALES BASQUE

Jeudi 12 mai 2022

Durée de l'épreuve : **3 heures 30**

*L'usage du dictionnaire unilingue non encyclopédique est autorisé.
La calculatrice n'est pas autorisée.*

Dès que ce sujet vous est remis, assurez-vous qu'il est complet.
Ce sujet comporte 10 pages numérotées de 1/10 à 10/10.

**Le candidat ou la candidate traite au choix le sujet 1 ou le sujet 2.
Il ou elle précisera sur la copie le numéro du sujet choisi**

Répartition des points

1^{ère} partie : Synthèse	16 points
2^{ème} partie : Traduction ou transposition	4 points

SUJET 1

Thématique : « Engagement et développement durable »

Axe d'étude : « Le monde agricole et la pêche »

1^{ère} partie : Synthèse en basque (16 points)

Après avoir pris connaissance des documents qui composent ce dossier, vous rédigerez en langue basque une synthèse en 500 mots environ en prenant appui, si vous le souhaitez, sur les pistes de réflexion suivantes :

1. Zein dira arrantzan dauden arazoak eta erronkak?
2. Zertan Amap-ak ote dira bestela kontsumitzeko aukera?
3. Zein da elkarteen eragina Euskal Herriko gizartean?

2^{ème} partie : Traduction en français (4 points)

Traduire l'extrait suivant du **document 1** (p.3), depuis la ligne 14 "*Sare pelagikoak, ...*" jusqu'à la ligne 20 "*...ez direla uste dugu.*"

Sare pelagikoak, bolantak eta arte berri hauek La Rochelle-ko, Nantes-eko eta beste itsas portuko arrasteroek ekarri dituzte. Donibane Lohizunen, orain dela bost urte, istilu latzak izan ziren arrastero hauen eta bertako arrantzontzien artean. Istilu haien ondorioz, familia asko apurtu eta etsai handiak sortu ziren. Atzerriko flota honek Hendaiara jo zuen eta bertan instalatu zen. Denbora igaro ahala, gero eta onartuagoak izan dira, jendeak "negozio ona" dela ikusi duenean. Hala ere, guretzat, negozio on horiek "ogia gaur, gosea bihar" besterik ez direla uste dugu.

Arrantzale baten lekukotasuna

Egun euritsu eta haizetsuan, itsasora atera ezin den horietako egun batean, izenik eman ez zigun Donibane Lohizuneko arrantzale batekin solasaldi bat eduki genuen. Hauxe esan zigun:

- 5 Itsasoa guztiona da. Euskal Herriko itsas ertzean gu, euskaldunok, izan ginen gure itsas bazter hau landu genuen lehenak. Gure historiaren zati handi bat itsasoan egin dugu. Ondarroa, Pasaia, Hondarribia, Donibane Lohizune, etab., itsasotik eta itsasorako bizi izan diren herriak ditugu. Egunero itsasoari zatitxo bat kenduz arrantzaleek beren bizitza aurrera atera dute. Itsasoaren eta lehorraren artean oreka egon dela esan daiteke.
- 10 Azken hamar urteotan, ordea, interes berriak sortu dira arrantzaren munduan. Sare pelagikoak, zaldi askoko arrantzontziak, tamaina txikiko arrainak harrapatzea, etab., arrantzaren munduan gertatu den interes-aldaketaren erakusgarri dira. Hemen lanean aritzen diren baxurako arrantzontziek, hegoaldekoen arrantzaera berdina dute. Beraz, gure artean ez dugu gatazkarik.
- 15 Sare pelagikoak, bolantak eta arte berri hauek La Rochelle-ko, Nantes-eko eta beste itsas portuko arrasteroek¹ ekarri dituzte. Donibane Lohizunen, orain dela bost urte, istilu latzak izan ziren arrastero hauen eta bertako arrantzontzien artean. Istilu haien ondorioz, familia asko apurtu eta etsai handiak sortu ziren. Atzerriko flota honek Hendaiara jo zuen eta bertan instalatu zen. Denbora igaro ahala, gero eta onartuagoak izan dira, jendeak “negozio ona” dela ikusi duenean. Hala ere, guretzat, negozio on horiek “ogia gaur, gosea
- 20 bihar” besterik ez direla uste dugu. Bestalde, teknika berrien kontra joatea begiak ixtea dela pentsatzen dugu. Beraz, ez goaz sare pelagiko eta antzeko arte hauen kontra, baina guzti hau ikerketa teknikoen bidez egituratu beharko litzatekeela uste dugu.
- 25 Ondorio gisa zera esango nuke: borroka hau ez dela Espainiako eta Frantziako arrantzaleen artekoa. Are gehiago, Euskal Herriko arrantzaleen interesen artean ez dago kontraesanik. Borroka negozio-enpresen artekoa da, eta horretan bai Espainiakoak, bai Frantziakoak eta baita Euskal Herrikoak ere sartuta daude.

Aizpurua Sarasola, Joxerra, *Arrantza-teknika berriak: istilu "saretsua"*, 1989.

<https://aldizkaria.elhuyar.eus/erreportajeak/arrantza-teknika-berriak-istilu-saretsua/>

¹ arrasteroek: *qui pratique le chalutage (pêche au chalut)*.

Barazkien birkonkista

Orain aukera baten gisa ikusia da baratzezaintza, bereziki itsasaldean. Hor baita behar gehien ere. Azken 5 urteetan 16 baratzezain dira instalatu. Hazparneko laborantza eskolan baratzezaintza biologikorako prestakuntza eskaintzen dute. Horiek horrela, 40 bat baratzezainetara heltzen dira gaur Ipar Euskal Herrian, tartean 35 biologikoan. Amap
5 esperientziaren hedapena horren lekuko ere bada. Bien garapena eskuz esku doa. Amaparen segurtamena baratzezainaren bankuekiko harremanak laguntzen du.

Orotara 26 Amap¹ dira Ipar Euskal Herrian. Ekainetik beretik hiru sortu dira, eta azkena irailean, Baiona Ttipikoa. Orotara zaila bada jakitea zehazki zenbat herritarrek gozatzen duten aukera hori, 2010ean jadanik milatik gora saski zenbatu zituen Amapak elkartzen
10 dituen Inter-Amapak. Saski bakoitzak hiru bat pertsona elikatzen dituela kalkulatu dute batez beste, orotara, Ipar Euskal Herriko herritarren %1ek erosketen zati bat Amapen bidez egiten dutela zenbatzen dute. Jakinez barnealdean badirela anitz beren baratze propioa dutenak edota ingurukoekin ari direnak. Jakinez salmenta zuzena ere garatuz doala eta merkatuak berak ez direla guti, azken finean, tokiko mozkinen lekua ez da
15 gutxiestekoa, nahiz eta oraindik baden zer egin, bereziki hirietan, Isabelle Capdevillek baieztatu duenez —Inter-Amapeko arduraduna da—.

Egiazko alternatiba bat indartzen ari dela konbentzitu da. Supermerkatuetatik at, urruneko ekoizpen industrialak saihesteko bidea sendotuz doala deritzo, eta, gainera, ekonomiak egiteko aukera ekar dezakeena. Amapetan gurutzatzen duen jendeekin hitz
20 eginez, guztiek aho batez berresten dute ekonomiak egiten dituztela: "Amap batean ez bazara, zer jateko gogoia duzun galdera pausatzen diozu zeure buruari. Desioarekin funtzionatzen duzu. Amapeko barazki sarea duzularik, ez da gehiago horrela. Galdera da, daukadanekin zer egin dezaket". Posible denaren eremua zabaltzeko aukera ematen duela dio, nahiz eta "hasieran uste izan kakastingarria izanen dela. Biziaren antolaketaz
25 beste ikuspegi bat dute Amapetan. Gainditua dute supermerkatuaren ezinbestekotasuna. Ez dute gehiago izan nahi banaketa handiaren menpe".

Dena dela, gaurko errealitatea begiratzen bada alternatiba guztiak kontuan hartuz, ezingo lirateke herritar guztiak ase. "Baina beste gisa batez antolatzen balitz, zergatik ez. Laborariek daramaten laborantza biologikoak planeta elika dezake, hori diote aditu
30 batzuek. Euskal Herrian kontzientzia bat bada, baina mugak badaude. Dibertsitatea eskas da", Capdevillek dioenez. Barazkiak badira sinbolo, gaineratekoek segitu behar baitute. Oilasko, ogi, fruitu ekoizleak eskas dira. Baina alde horretatik ere ari dira lanean. Denetarik proposatzen duten 80 bat laborari ari dira gaurko egunean Amapekin. BLE elkarteak hamar bat dibertsifikazio proiektu laguntzekotan da. Baina hor ere zailtasunak ez
35 dira eskas. Fruitu ondoak landatu, eta zazpi bat urte egon behar da bederen, lehen fruituak biltzeko.

Ipar Euskal Herriko Hitza, *Barazkien birkonkista*, 2012.

<https://iparraldekohitza.eus/2012/11/30/barazkien-birkonkista/>.

¹ AMAP: *Association pour le Maintien d'une Agriculture Paysanne*.

ALTERNATIBA

Zokoa, 2014ko urriaren 5ean harri mokorren ezker paretan

**Eko-
etxebizitza** **Hiri laborantza** **Trukaketa** **Merkatu
herrikoia**
Kontzertuak

Klima eta kostaldea **Txirringa
Tangiak**
Kantaldiak
**Euskal
moneta** **Konpondu
Birziklatu
Eskulanak** **Arrantza
jasangarria** **Karrikako antzerkia**
Haur jokoak **Garraioak
eta justizia
soziala**

Sistema alda dezagun, ez klima !

Izen emate eta argibideak:
larrun@bizimugi.eu
0(033)5 59 26 70 06 – 0(033)6 41 11 14 16
<http://alternatiba.eu/hego-lapurdi>



Affiche de ALTERNATIBA

source :<https://bizimugi.eu/wp-content/uploads/2014/05/afitxa-Alternatiba-Zokoa.png>

SUJET 2

Thématique : « Expression de l'amour »

Axe d'étude : « L'amour des lieux »

1^{ère} partie : Synthèse en basque (16 points)

Après avoir pris connaissance des documents qui composent ce dossier, vous rédigez en langue basque une synthèse en 500 mots environ en prenant appui, si vous le souhaitez, sur les pistes de réflexion suivantes :

1. Nola agertzen da euskaldunen etxearekiko atxikimendua?
2. Emigrazioaren garrantzia euskaldunen historian.
3. Nolakoa da euskaldunen harremana Euskal Herriarekiko?

2^{ème} partie : Traduction en français (4 points)

Traduire l'extrait suivant du **document 2**. (p. 8) depuis la ligne 20 "*Bidaiatzen dugunean...*" jusqu'à la ligne 26 "*... zinez dibertsoak dira*" :

Bidaiatzen dugunean eta Euskal Etxe batera ailegatzean bitxi egiten ahal da ikustea pertsona batek edo bik bakarrik hitz egiten dutela euskaraz, kultura gutxi ezagutzen dutela eta bizi direla mundu pixka bat imajinatu batean. Aldi berean, Euskal Etxe batzuk ez dira hainbeste interesatzen soilik euskal dantza, pilota eta folkloreaz. Adibidez, Londreseko Euskal Etxean badaude konferentzia izugarriak, kontzertuak, eta abar..., baita Berlinen eta Bartzelonan ere, haien programak begiratzeak balio du, oraingo Euskal Herriko errealitatea biziarazi nahi dute atzerrian, zinez dibertsoak dira.

Document 1

Nire aitaren etxea

- Nire aitaren etxea defendituko dut.
Otsoen kontra, sikatearen kontra,
lukurreriaren kontra, justiziaren kontra,
defenditu egingen dut
- 5 nire aitaren etxea.
Galduko ditut aziendak,
soloak, pinudiak;
galduko ditut korrituak,
errentak, interesak,
- 10 baina nire aitaren etxea defendituko dut.
Harmak kenduko dizkidate,
eta eskuarekin defendituko dut
nire aitaren etxea;
eskuak ebakiko dizkidate,
- 15 eta besoarekin defendituko dut
nire aitaren etxea;
besorik gabe, sorbaldik gabe,
bularrik gabe utziko naute,
eta arimarekin defendituko dut
- 20 nire aitaren etxea.
Ni hilen naiz,
nire arima galduko da,
nire askazia galduko da,
baina nire aitaren etxeak
- 25 iraunen du zutik.

Gabriel ARESTI, *Nire aitaren etxea*, 1963.

<http://www.bilketa.eus/eu/bildumak/testu-hautatuak/2326-nire-aitaren-etxea-gabriel-aresti-1963>

Euskal diasporan egun askoz txikiagoa da herrimina; orain emigrazioa hautu bat da.

Urruñarra sortzez, Adelaide Daraspe Historia ikasketak egin ondoren Masterra egitera Quebecera joan zen 2006an. Montrealeko Euskal Etxeko presidentea da 2009tik eta mundu mailako Euskal Etxeen Sareko koordinatzaile izendatua izan da. Euskal janariaren eta nortasunaren arteko lotura aztertzen duen tesia aurkeztuko du 2013an ikuspegi historiko eta antropologikotik.

[...]

Zer da euskal familia?

Familiaren kontzeptua aski zabala da, hitzaldian familia zentzu ezberdinetan hartuko dut. Familia etxean, hau da gurasoak, haurrak eta abar... Baita euskal kultura edo munduaren familia ere. Gauza batzuk berdin dira jende euskaldun guztientzat, eta hori da denak
5 garelako euskaldun sentitzen, euskara ez dakitenak ere bai; eta hori diasporan inportantea da, hemen baino gehiago. Atzerrian direnez, Euskal Herriarekiko sentimendu handiagoa dute; orduan benetan sentitzen dira euskaldun, esaten dute eta harro dira. Zentzu orokor horretan euskaldun guztiak familia berean sartzen ahal dira, baina gero badira desberdintasun anitz eta sakonak. Eguneroko bizitza eramateko moduan aldatzen
10 da. Ipar Amerikan, adibidez, eguerdiko edo arratseko bazkaria elgarrekin egitea ez da denentzat normala; eta euskaldun batzuek Euskal Herriko modua atxikitzen dute, eta besteek, ez. Askotan euskaldun izatearen parte handi bat galtzen da, ez baita mahai inguruko komunikazio hori izaten.

Nortasun bakarreko familia al da euskal diaspora?

15 Nire ustez ez da familia homogenea. Euskal Herritik askotan diaspora ikusten dugu zerbait homogenea balitz bezala. Pentsatzen dugu arras ongi dela nola atxikitzen duten euskal kultura hain urrun izanda, kontuan izan gabe zeintzuk diren desberdintasun guztiak. Egia da euskaldun anitz direla eta indar izugarriak egiten direla euskal kultura eta batzuetan hizkuntza ere atxikitzeko, baina egia da ere ez dugula zinez ezagutzen.
20 Bidaiatzen dugunean eta Euskal Etxe batera ailegatzean bitxi egiten ahal da ikustea pertsona batek edo bik bakarrik hitz egiten dutela euskaraz, kultura gutxi ezagutzen dutela eta bizi direla mundu pixka bat imajinatu batean. Aldi berean, Euskal Etxe batzuk ez dira hainbeste interesatzen soilik euskal dantza, pilota eta folklореaz. Adibidez, Londreseko Euskal Etxean badaude konferentzia izugarriak, kontzertuak, eta abar..., baita Berlinen eta
25 Bartzelonan ere, haien programak begiratzeak balio du, oraingo Euskal Herriko errealitatea bizi arazi nahi dute atzerrian, zinez dibertsoak dira.

Nolakoa da diasporarekin harremana?

Ikusi behar da nola atxikitzen diren harremanak eta zer den familia bat bi kontinenteren artean banandua izatea, zer lotura sortzen diren. Orain badago Internet, baina nola egiten
30 zen lehenago? Badago gauza bat asko aipatzen dena diasporari buruz: herrimina. Hori egia zen XIX. eta XX. mendearen lehen erdian, baina orain askoz gutxiago da. Adibidez Montrealeko Euskal Etxeko guztiak bi urtetik behin bederen etortzen dira eta beste herri batean bizitzeko hautua egin dute.

35 Badago ezberdintasun handi bat kontuan hartzekoa: emigrazioaren arrazoia. Batzuk errefuxiatuak izan dira, beste batzuk behartuak izan dira herria uztera; eta horiek min handia bizi izan dute. Baina orain gehienak joan dira bizi esperientzia baten bila, bizi maila hobetzeko, ikasketak edo ikerketak egitera... Horren arabera, Euskal Herriarekiko lotura eta nola bizi duten euskal familia ezberdina da.

Idoia ERASO, interview d'Adélaïde Daraspe, *Euskal diasporan egun askoz txikiagoa da herrimina; orain emigrazioa hautu bat da.*, 2012.

<https://gara.naiz.eus/paperezkoa/20121115/372660/eu/Euskal-diasporan-egun-askoz-txikiagoa-da-herrimina-orain-emigrazioa-hautu-bat-da?Hizk=es>



<https://www.lalibrairie.com>
(Consulté le 10/11/2021).